

# AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

## AURKIBIDEA:

1. GERO ETA DESBERTINASUN HANDIAGOAK
2. PRESIO FISKALAREN ALDEA EUROPAREKIKO
3. DEFIZITA ETA ZOR PUBLIKOA HEGO EUSKAL HERRIAN
4. OSASUN ZENTIMOA
5. NAFARROAKO GOBERNUAK ENPRESEI DIRUA EMATEN JARRAITZEN DU
6. PROPOSAMENA: ERREGULAZIO FINANTZIEROA, BANKA PUBLIKOA ETA NAZIONALIZAZIOA

## 1. GERO ETA DESBERTINASUN HANDIAGOAK

2011ko bukaeran ELGEk txosten bat aurkeztu du: "Zatituta gaude: desberdintasunak handitzen jarraitzearen zergatia", eta bertan azken urteetan desberdintasunak zergatik handitu diren aztertzen du. Txosten honek dionez, **oraingo krisi aurreko hiru hamarkadetan soldaten arteko desberdintasunak eta etxeetako diru-sarreraren desberdintasunak handitu** egin dira ELGEko estatu gehienetan, nahiz eta estatuak hazkunde ekonomiko garaian egon eta enplegua sortu.

Desorekak handitzearen arrazoi nagusia soldaten arteko desberdintasunak handitzea da. Txostenaren arabera, langileen %10 aberatsenen diru-sarrerak asko handitu dira langileen 10% txiroenarekin konparatuz.

Soldaten desberdintasunek gero eta jende gehiagok gizarte babesaren laguntza behar izatea dakar. Baina gero eta jende gehiago izanik hauek behar dituen, babes-sistema hauek ez dira lehen bezala desberdintasunak txikitzeko gai izan. Hau da, **babes-sozialeko sistemen aberastasuna banatzeko efektua gero eta txikiagoa da**, sistema hauek gero eta ahulagoak direlako.

Diru-sarreraren arteko desberdintasuna indize baten arabera neurtzen da (Gini Koefizientea). 0-ak desberdintasunik ez dagoela suposatzen du, eta 1ak desberdintasunik handiena. ELGEren txostenaren arabera, Gini Koefizientearen batz bestekoa 2008an 0,3041 izan zen. **Espainiar estatua 13. dago desberdintasunen rankinean** 34 estatutik,

eta bere indizea 0,313koa da, batz bestekoa baino zerbait handiagoa.

Desberdintasun handiena dagoen lurraldea Txile da (0,496rekin), eta hurrena Mexiko (0,4692), Turkia (0,403) eta Estatu Batuak (0,3701). Europar Batasuneko estatuen artean, espainiar estatuan baino desoreka handiagoak Portugalen, Erresuma Batuan eta Italian daude. Desoreka txikiak berriz Eslovenian eta Danimarkan daude.

ELGEren txostenak **espainiar estatuan azken urteetan desberdintasunak handitu egin direla** argi uzten du. Era honetan, biztanleriaren %10 aberatsenak 10% txiroenak baino 11,9 aldiz diru-sarrera handiagoak ditu.

Azkenik, txosten honek **banaketa justuago bat egiteko bideak** erakusten ditu:


- Desorekei aurre egiteko modu eraginkorrena **enplegua** da. Gakoa enplegu gehiago eta hobea sortzean datza, pobrezia alde batera uzteko aukera ematen dutena.
- **Gizarte-prestazioak**. Diru-sarrera txikiak dituztenek jasaten dituzten galerak gutxiesteko beharrezkoak dira ongi zehazturiko politika laguntzaileak.
- Errenta altuak dituzten gero eta jende kopuru txikiagoak, pertsona hauek orain zerga-ahalmen handiagoa dutela suposatzen du. Honela, gobernuek **zergak duten funtzio banatzailea berrikusi** beharko lukete, gehien dutenek are gehiago ordaintzeko.
- **Kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzea**, hezkuntza, osasuna eta familien zaintza bezalakoak.

## 2. PRESIO FISKALAREN ALDEA EUROPAREKIKO

**EB-27ko presio fiskala BPGd-aren %39,6koa izan da 2010.** urtean, Eurostatek argitaratu berri duenez. Honek sortu diren 100 eurotatik 39,6 gobernu ezberdinek jaso dituztela suposatzen du, zerga eta gizarte kotizazioen bidez.

Gehien jaso duen estatua Danimarka izan da (BPGd-aren %48,5a), Belgika izan da hurrena (%46,4) eta ondoren Suedia (%46,3). Espainiar estatua soilik Irlandaren aurretik dago, %32,9ko presio fiskalarekin, europar batasuneko batz bestetik 6,7 puntura.

DIRU BILKETA EB-27 (% BPGd). 2010



Iturria: Eurostat

**Hego Euskal Herriko presio fiskala BPGd-aren %31,4koa izan zen 2010ean.** Honek EB-27koa baino 8,2 puntu txikiagoa izan zela suposatzen du. HEHan EB-27ko batz besteko presio fiskala bagenu, **6.900 milioi** euro gehiago bilduko lirateke.

Gainera, krisia hasi zenetik bilakaerari begiratzeko badiogu, EB-27ko batz bestekoa puntu bat jaitsi den bitartean (2007ko %40,6tik 2010eko %39,6ra), HEHan 2,1 puntu galdu dira epe berean (%33,5etik %31,4ra). Hau da, **diferentzia handitu egin da.**

## 3. DEFIZITA ETA ZOR PUBLIKOA HEGO EUSKAL HERRIAN

**Hego Euskal Herriko instituzioek** (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta 3 Diputazioak) **Espainiar Gobernuak ezarritako defizit muga onartu dute.** Erabaki honen aurka ez azaltzea kompetentzien utzikeria larria egitea da, aurrekontu politika bezalako funtsezko gaiak eragiten diena. Egungo legediak beste bide batetik joatea ahalbidetzen du, baina ez da hau izan aipaturiko instituzioen aukera politikoa.

Honen eraginez, 2011rako defizit muga BPGd-aren %1,3koa izatea onartu dute. Krisi egoera batean, gastu publikoaren erdia baino gehiago kudeatzen duten administrazioek (gizarte gaitakoak gehienbat, hala nola osasuna, hezkuntza edo gizarte zerbitzuetakoa) muga hau onartzeak, **gizarte politikan murrizketan onartzea suposatzen du.** Are garbiago azaltzen da gai hau, EAEko zein Nafarroako instituzioek fiskaltasun politika mantentzea aukeratu dutenean, txosten honetako beste atal batean azaltzen denez, presio fiskala Europako azken muturrean dagoelako.

Testuinguru honetan eman dira jakitera **Eusko Jaurlaritzako zein Nafarroako Gobernuko 2011ko defizitaren eta zor publikoaren datuak.** Eusko Jaurlaritzaren defizita BPGd-aren %2,56ean dago

2010koaren antzekoa, %2,49), eta Nafarroakoa BPGd-aren %1,89 (2010eko %3,11 baino txikiagoa). Biek aipatutako %1,3ko muga pasa dute.


Dena den, bi kasuetan **defizita eman da nahiz eta bi gobernuek 2011ko gastua 2010ekoarekin alderatuta jaitsi egin duten**. Murrizketa honek enplegu publikoa suntsitzea suposatzen du, edo gastu soziala txikitzea (hala nola osasunekoak). Hau da, langabezia handitzeko eta gizarte babesa murrizteko politika egin da, gizartearen pobretzea dakarrena.

Defizita ez da, beraz, gastu handiegi baten ondorioz eman, baizik eta bilketaren bilakaera negatibo baten erruz. **Defizita zuzendu nahi bada, diru-bilketa handitu behar da**, era justu batea, eta ez krisi ekonomikoa eta soziala areagotzen duten murrizketak ez egin.

Gainera, defizit maila larritasuna zor publikoaren mailaren arabera da. Pertsoneri gertatzen zaigun bezala. Ez da gauza bera mailegua eskatzea ez badugu zorrik, edo ordaindu ezin dugun hipoteka bat dugunean.

Zentzu honetan, **Hego Euskal Herriko zorra oso maila baxuan dago**. Hain zuzen, Espainiako Bankuaren datuen arabera, Nafarroako Gobernuaren zorra BPGd-aren %11,1eko da, eta %7,9koa Eusko Jaurlaritzarena. Europako Batasuneko zor publikoaren muga %60ekoa da (nahiz eta estatu ugari askogatik gaintu eta baita bikoizten duten ere). Hauen aurrean, Hego Euskal Herriko instituzioena ia huskeria da. Eta horregatik, ez dago gehiago zorpetzeko politikei uko egiteko arrazoirik, gizarte babesa hobetzeko denean beti ere.

#### DEFIZITA ETA ZOR PUBLIKOA. 2011 (BPGd %)



#### 4. OSASUN ZENTIMOA

Pasa den otsailaren 8an **Lakuako Gobernuak hidrokarburoen gain ezartzeko "osasan zerga" gisako finantzaketa martxan jartzea ikertzen** ari dela iragarri zen. Osasun zentimoa (osasun publikoa finantzatzeko laguntzeko zenbait hidrokarburoen salmenta txikizkariaren gain ezartzen den zerga), karburanteen gain jartzen den tasa bat da, **2,4 zentimotakoa litroko, baina 4,8 zentimotakoa izatera heldu daitekeena**. 2002an sortu zen sistema hau, eta zenbait erkidegori utzi zitzaizen (Andaluzia, Murtzia, Extremadura, Katalunia, Madril, Asturias, Valentziako Erkidegoa, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon eta Galizia). Ondoren egin zen aldaketa batean, EAEk eta Nafarroak Kontzertu Ekonomiakoan eta Hitzarmen Ekonomikoan ezartzeko aukera eman zen.

Osasun zentimoarekin dagoen eztabaida, pribatu eta profesionaleri eragiten diena, berau ezartzeko momentutik dator. Izatez, Europako Batzordeak 2008an Gobernu espainiarrari legedia aldatzeko, eta legedi

europarrarekin bat zetorrena egiteko eskatu zion txosten batean.

**ELA ez dator bat zerga honekin, zeharkako zerga baita.** Eta gastu zehatz batekin erlazionatzen den zerga delako ere.

Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, "osasun zentimoa" delakoak 90 eta 100 milioi euro arteko diru-bilketa suposatu lezake, zenbat hidrokaburori ezartzen zaien arabera (bilketa gehienez ere 50 milioietakoa izango litzateke).

Hala eta guztiz ere, **osasun zentimoa legez kontrakoa izan liteke**, edo gutxienez hori uste du Luxenburgon dagoen Europako Justizia Epaitegiak, Kataluniako eta Galiziako Auzitegi Nagusiek egindako galderen aurrean. Legez kontrakoa dela aitortuko balitz, sistema honekin gobernuak bildutako diru guztia bueltatzea suposatu lezake

**Eusko Jaurlaritzak goitik beherako aldaketa fiskal bat egin beharko luke**, diru gehiago biltzeko. Eta hau iruzur fiskalaren aurkako borrokan eta Sozietateen gaineko zerga eta errenta altuen eta kapitaleko errenten PFEZ igotzean datza.

## 5. NAFARROAKO GOBERNUAK ENPRESEI DIRUA EMATEN JARRAITZEN DU

Pasa den otsailaren 22an Yolanda Barcinaren gobernuak propaganda hotsen artean 4.200 pertsona kontratatu eta gizarteratze errenta (lehengo oinarrizko errenta) jasotzen duten beste 800 lagun berriz ere lan merkatuan sartuko direla iragarri zuen, hartutako bost neurriek esker.

Lana sustatzeko neurri hauek **enpresei egiten dituzten lan-kontratuengatik dirua ematean oinarritzen dira** gehien bat. Eta

22,8 milioi eurotako kostua dute. Hauek dira nagusienak:

- **25 langile baino gutxiago dituzten enpresetan, 4.800 eurotarainoko diru-laguntza ematea lan-kontratu bakoitzagatik** edota behin-behinekoa behin-betikora aldatzen den bakoitzagatik (zenbatekoa kontratuaren lehen urteko Gizarte Segurantzaren 100% izango da). Kontraturiko pertsonak 30 urtez beherakoak edo 45etik gorakoak izatea, edo iraupen luzeko langabetua izatea eskatzen da, eta behin-betiko kontratuak gutxienez 3 urte irautea. Neurri onek 5 milioi eurotako kostua du.
- Enpresentzako **4.200 eurotako kenkaria ezartzea egiten den behin-betiko lan-kontratu bakoitzeko**, enpresako langileen gehikuntza bat suposatzen duenean. 10,3 milioi euroko kostua du neurri honek.
- **Oinarrizko errenta jasotzen dutenentzat**, UPN-PSN Gobernuak **6 hilabeteetako kontratuak proposatzen ditu, gutxieneko soldata jasoz (641 euro)**, eta diru horregatik lan-hitzarmenaren arabera dagozkion orduak lan eginez. Soldata Nafarroako Gobernuak finantzatu du osorik, honela, enpresak ez du soldataren kargu egin beharrik, eta Gizarte Segurantzako gastuak ordainduko ditu bakarrik. Dena den, udalen bat baldin bada kontratua egiten duena, kasu honetan, Nafarroako Gobernuak Gizarte Segurantza ere ordainduko du. Neurri honen kostua milioi 1 eurotako da.

**Diru-laguntzek ez dutela lanik sortzen** jakina da. Enplegua ekonomia jardueraren menpe dago, eta kontratatzaileak langileren beharra izateaz. Ezer ez gehiago. Beraz, diru-laguntza hauek ez dute lanposturik sortzen, eta enpresariei bestela ere egingo lituzketen lan-kontratu batzuegatik dirua emateko bakarrik balio dute.

Hau dena gutxi balitz, **neurri hauek prekaritatea bultzatzen dute** (641 euro hileko eta 6 hilabeteetako kontratuak bultzatuz). Gainera ez da inolako kontrol eta inspekzio mekanismorik hartu hauen emaitzak ikusteko.

## **6. PROPOSAMENA: ERREGULAZIO FINANTZIEROA, BANKA PUBLIKOA ETA NAZIONALIZAZIOA**

Egungo banka sistema posiblea den bakarra dela sinetsarazi nahi digute. Eta ez da horrela. Azken urteetan eman diren erregulazio ezerako prozesuei, merkatuen liberalizazio eta pribatizazioei begiratzea besterik ez dago, hauetan atzera egin daitekeela ikusteko.

Ez badira oinarrizko aldaketak egiten, arazoak larriagoak izango dira: **espekulazioa** da oraindik ere negozioa egiteko lehen modua, **egungo krisiaren** sortzearen arrazoi nagusietako bat izanik. **Instituzio publikoek** diru asko eman diete finantza-erakundeei hauek salbatzeko, beraien jokabidea aldatu gabe. **Finantza-erakundeek** 2009ko maiatzetik Europako Banku Zentraleko maileguak %1ean hartzen dituzte, eta diru hau ez da famili eta enpresetara heltzen. Hori egin beharrean, gobernuei ematen dizkiete maileguak %1ekoa baino askoz ere interes tasa altuagoan.

Beraz, ondorengo beharrezkoa deritzogu:

- **Banka eta finantza erregulazioa.** Produktu eta ekintzen gaineko legedia zorrotza ezartzea, espekulazioa eta arriskutsuak diren ekintzak eta paradisu fiskaletakoak galaraziz. Erregulazio honek diru mugimenduak arautzea eta familiei eta enpresei maileguak ematea izan behar du helburu.
- **Banka publikoa eta nazionalizazioa.** Pribatizazio eta bankarizazio politikan atzera egin behar da. Gainera, erreskataturiko finantza-erakundeak nazionalizatu egin behar dira. Erakunde publikoen irizpideak luzera begirakoak izan behar dute eta gizartearen onura bilatzen dutenak.
- **Erantzukizunak bilatu.** Finantza-erakundeetako arduradunak, eta bankaren politika defendatu duten arduradun politikoek, beraien ardura hartu behar dute. Krisia egin dutenek ordaindu behar dute.
- **Bankarentzako zerga berezia.** Zerga berezi bat ezarri behar da bankaren irabazien gainean, eta honek handia izan behar du (adibidez irabazien %25a baino handiagoa, eta inolako kenkaririk gabea) bankak finantza-erakundeen fakturaren zati bat ordain dezan.